

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Lagun Machinery, SLU enpresarentzako hitzarmen kolektiboa

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkararena. Honen bidez ebazten da 2021 Lagun Machinery, SLU enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01003282012007.

AURREKARIAK

2021eko abuztuaren 10ean aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariek eta ordezkarik sozialak, 2021eko uztailaren 14an sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari dagokio, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuko 14.1.g artikulua –Lan eta Enplegu Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko lan hitzarmen eta akordio kolektiboaren eta berdintasun planen erregistroko Arabako lurralde bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 9a

Arabako lurralde ordezkarria

MARIA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE

**LAGUN MACHINERY, SL UNIPERSONAL ENPRESAREN
HITZARMEN KOLEKTIBOA-2021. URTEA****Lehenengo artikulua**

Indarraldia eta iraupena. Hitzarmenak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzen den eguna dena delakoa izanda ere, eta urtebeteko iraupena izango du; hau da, 2021eko abenduaren 31ra arte.

Aurrekoa gorabehera, hitzarmena isilbidez luzatuzat joko da indarraldia amaitzen den egunetik, iraupen bereko beste aldi baterako, baldin eta enpresak eta langileen ordezkariak adosten ez badute hitzarmen hau beste hitzarmen batekin ordeztea.

Bigarren artikulua

Aplikazio-eremua. Hitzarmen honek plantillako langileen lan-baldintzak arautzen ditu, bai eta hitzarmenaren indarraldian plantillan sartzen diren langileenak ere.

Hirugarren artikulua

Hitzarmena salatzea. Negoziazio-batzordea osatzen duten alderdiek adostu dute hitzarmena automatikoki salatuzat joko dela 2021eko abenduaren 1ean, eta beste negoziazio-mahai bat eratu beharko da 20 eguneko epean, hurrengo hitzarmenaren negoziazioak haste aldera.

Berariaz hitzartzen da, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, hitzarmenak indarrean jarraituko duela amaiera iragarri eta hitzartutako iraupena amaitu ostean, harik eta bi alderdiek hori ordeztuko duen beste bat sinatzen duten arte.

Hitzarmenaren arautze- eta behartze-edukiko klausula guztiek indarrean jarraituko dute hitzarmen berri bat sinatu arte.

Laugarren artikulua

Ordainsariak zehaztea:

1. 2021. urterako, ordainsariak ez dira aldatuko, eta aurreko urteko berberak izango dira.
2. Bidaia-gastuak eta dietak 1. eranskinean jasotakoak dira.

Baliogabetuta geratzen dira aurreko enpresa-hitzarmenetatik erator daitezkeen soldata-alde guztiak, eta hitzarmen honetan jasotako hobekuntzak aplikatuz xurgatu eta konpentsatuko dira alde horiek guztiak.

Bosgarren artikulua

Soldata-egitura. Hitzarmen hau egiterakoan, honako ordainsari eta kalte-ordain hauek hartu dira aintzat:

1. Ordainsarien kontzeptuak:

- Oinarrizko soldata.
- Osagarriak.
- Antzinasuna.
- Lan toxiko, arriskutsu edo bereziki nekagarriengatiko plusa.
- Gaueko lanagatiko plusa.
- Plus pertsonala.
- Uztaileko eta Eguberrietako aparteko pagak.
- Aparteko orduak.
- Oporrak.

2. Kalte-ordainen kontzeptuak:

- Soldataz kanpoko plusa.
- Joan-etorrietarako plusa.
- Dietak.

Seigarren artikulua

Oinarrizko soldata. Oinarrizko soldata berdina da kategoria bera duten langile guztientzat. 2. eranskinean jasotzen dira kategoria guztiek 2021ean izango dituzten oinarrizko soldatak.

Zazpigarren artikulua

Kalte-ordainen kontzeptuak. Soldataz kanpoko plusak kalte-ordainen kontzeptu hauek hartzen ditu:

- Dirua erabiltzeagatiko kalte-ordaina.
- Lanabes eta erreminten higadura.
- Laneko arropa garbitzea.
- Kalte-ordainen edo ordejarriak konpentsatzeko gainerako kontzeptuak. Praktikan, nahikoa izango da horrelako bat izatea ordaindu beharra eragiteko.

Soldataz kanpoko plusa berdina izango da kategoria guztietarako: 52,83 euro hilean. Urteko 14 pagetan ordainduko da.

2019ko uztailaren 1a baino lehenagoko antzinatasuna duten langileek joan-etorrietako plusa langileek etxetik lantokira egin beharreko lokomozio-gastuak ordaintzeko da. Hilean, 85,57 euro garbi ordainduko dira kontzeptu horregatik. 11 pagetan ordainduko da, ez baita ordainduko aparteko pagetan eta oporraldian.

Aurrekoa gorabehera, bi alderdiek adostu dute plus horrek ez duela ekarriko alokatutako edozein tailerretara edo beste edozein tokitara —aldi baterako zein behin betiko— joan behar duten langileek orain arte jaso duten kopurua desagertzea. Beraz, langile guztiek jasoko dute plus hori, bestelako lekualdatzeen ondorioz beste kopuru bat jasotzeko duten eskubideari utzi gabe.

Zortzigarren artikulua

Antzinatasun-plusa. 3. eranskinean jasotzen dira 2021erako antzinatasun-osagarri pertsonalak, kategoria bakoitzerako eta enpresan lanean emandako bosturteko bakoitzeko.

Zerbitzu-urteek aldian-aldian igoerak sorraraziko dituzte bosturtekoa betetzen den urtearen urtarilaren 1etik aurrera, baldin eta mugaeguna ekainaren 30a baino lehenagokoa bada, eta hurrengo urteko urtarilaren 1etik aurrera, berriz, mugaeguna ekainaren 30a baino geroagokoa bada.

Bederatzigarren artikulua

Plus pertsonala. Langile bakoitzaren soldata-orrian adierazitakoa da:

- Soldata-masa gisa finkatuko da.
- Ezin izango da xurgatu edo konpentsatu.
- Urtero adostutako igooeren arabera eguneratuko da plusaren balioa.
- 14 pagetan ordainduko da.

Hamargarren artikulua

Gaueko lanagatiko, eta lan toxiko, nekagarri eta arriskutsuengatiko plusa. Oro har, bereziki nekagarritzat, toxikotzat edo arriskutsutzat jotzen diren lanak behar bezala jasota geratuko dira lanpostuen balorazioan eta pizgarrien balioetan. Soldatako beste kontzeptu batzuetan jasotzen

ez direnean, 4. eranskinean azaltzen den hobaria ordainduko zaie lan horiek egiten dituzten langileei. Hobari horren erdia ordainduko da, baldin eta egin beharreko lan bereziki penagarri, toxiko edo arriskutsu hori 60 minututik gorako denboran egin behar bada lanaldian, baina lanaldiaren erdia gainditu gabe.

Kasu bakan eta berezi batzuetan, gerta liteke lanak nekagarritasun berezia, toxikotasuna eta industriaren arrisku normaletik gorako arrisku nabarmena izatea. Horrelakoetarako, aipatutako eranskinean jasotzen dira zer hobari kobratuko diren, bai zirkunstantzia horietatik bi gertatzen direnean, bai hirurak batera gertatzen direnean. Aurrekoa gorabehera, lan horien ondorioak ahal den neurrian desagerrarazteko neurriak hartuko dira.

Ulertu behar da artikulua honetan jasotako hobarietarako hitzartutako zenbatekoak eguneko hobari gordin eta finkoak direla, hitzarmenaren indarraldiko urte osorako; edozein izanda ere kategoria bakoitzeko oinarrizko soldataren arabera ezarritako zenbatekoa.

Artikulu honetan xedatutako plusa jasotzearen inguruan erreklamaziorik egon eta bidezko-tzat jotzen badira, ondorio ekonomikoak izango dituzte erreklamazioa lan-administrazioko agintaritzaren eskudunean aurkeztu den egunetik aurrera.

Gaueko osagarria jasotzeko eskubidea duten langileek 4. eranskinean kategoria bakoitzerako adierazitako hobaria jasoko dute. Artikulu honetan jasotako hobariak direla-eta, eguneko zenbateko gordinak dira, eta finkoak hitzarmen honen indarraldi osorako, edozein izanda ere hitzarmenean kategoria bakoitzeko oinarrizko soldataren arabera ezarritako zenbatekoa.

Hamaikagarren artikulua

Txanda. Zortzi orduko lanaldi osoko txanda-erregimeneko langileek eskubidea izango dute "ogitartekorako" ordu laurdena hartzeko denboratzat gordetzeko. Sortzen den hilabete berean hartu beharko da nahitaez denbora hori.

Hamabigarren artikulua

Aparteko haborokinak. 2021. urtean, enpresako langile guztiek honako zenbateko hauek jasoko dituzte kontzeptu horiengatik: hilabete bateko oinarrizko soldata, plus pertsonala, soldataz kanpoko plusa eta antzintasuna. Haborokin horiek jasotzeari begira, lan-denbora efektibotzat joko dira aldi baterako ezintasuneko egoeran emandako aldiak.

Haborokinak uztailaren 15etik 18ra eta abenduaren 15etik 18ra ordainduko dira.

Hamahirugarren artikulua

Aparteko orduak. Egiturazko produkzio-arazoak konpontzeko behar diren aparteko orduak egin ahal izango dira, betiere legeak onartutako mugen barruan. Ordu horiek sartzea guztiz borondatezkoa izango da langileentzat. Ordu horiek kategorien arabera zerrendan ageri diren prezioan ordainduko dira. Hitzarmen honetako 5. eranskinean dago zerrenda hori.

Ordu estrak egin eta dirutan kobratu nahi ez dituztenek, eskubidea izango dute 1 ordu eta 45 minutu hartzeko lan egindako aparteko ordu bakoitzeko.

Hamalagarren artikulua

Lanaldia. Hitzarmen honetan jasotako baldintza ekonomikoak urteko 1.720 lanordu efektiborako dira.

6. eranskinean jasotzen da 2021erako lan-egutegia, eta ez dago lanaldiaren banaketa irregularrik.

Txandaka (bi txanda) lan egiten ez duten tailerreko langileen lanaldia 6:00etatik 14:00etara izango da.

Bulegoko langileek lanaldi zatitua izango dute, udako hilabeteetan izan ezik (ekainaren 15etik irailaren 15era).

Hamabosgarren artikulua

Oporrak. 2021ean, egutegiko 31 eguneko oporraldia izango dute hitzarmen honen aplikazio-eremuan sartzen diren langileek, lan egindako urteagatik (iraila-abuztua). Alabaina, oporraldi hori alda daiteke, xede horretarako lege-xedapen bat indarrean sartzen bada.

Ordaindutako oporraldia izango da, kontzeptu hauek kontuan hartuta: hilabete bateko oinarritzko soldata, plus pertsonala, soldataz kanpoko plusa eta antzintasuna.

Langilea aldi baterako ezintasun-egoeran gertatzen baldin bada opor-garaian edo garai horren aurretik, eta, egoera horren ondorioz, ezin baditu osorik edo zati batean hartu, aldi baterako ezintasuna amaitu ondoren opor horiek hartzeko eskubidea izango du langileak. Nolanahi ere, ezin baldin badu oporraldia dagokion urte naturalaren barruan baliatu, ezintasun-aldia amaitu ondoren baliatu ditzake oporrak; betiere ez badira hemezortzi hilabete baino gehiago igaro oporrak hartzeko eskubidea sortu den urtearen amaieratik aurrera.

Nolanahi ere, urtean opor-hilabete bat baino ez da ordainduko, eta langileari opor-kontzeptuagatik ezarritako soldata bermatuko zaio opor-hilabeteen, artikulua honen aurreko paragrafoetan adierazitakoarekin bat. Betiere aurreko urtean galdutako oporrei ez badagokie.

Hamaseigarren artikulua

Ordaindutako lizentziak eta baimenak. Langileak eskubidea izango du ordaindutako baimenak hartzeko, erantsitako soldata-taulen arabera, honako arrazoi hauengatik:

1. Gurasoen, aita-amaginarreben, aitona-amonen, aitona-amona politikoen, seme-alaben, biloben edo anai-arreben heriotzagatik: egutegiko hiru egun. Ezkontidearen heriotzagatik: egutegiko bost egun. Baimen hori luzatzeko aukera dago, ordaindu gabeko hiru eguneko baimena eskatuz gero.

2. Anai-arreba politiko eta seme-alaba politikoen heriotzagatik: egutegiko bi egun.

3. Bigarren mailara arteko odolkidetasunezko edo ezkontzako senideen gaixotasunagatik, ospitaleratu, ebakuntza kirurgikoa egin edo etxean atsedean hartu behar bada: egutegiko bi egun. Medikua ziurtagiria beharko da, arrazoi hori justifikatzeko.

Gaixotasuna luzatuz gero, lehen lizentzia amaitu eta hogeita hamar egun igarotzean, langileak eskubidea izango du denbora bereko lizentzia ordaindu gabea izateko. Bigarren baimen hori ezingo da luzatu.

4. Langileak urritasun psiko-fisikorik duen seme-alabarik badu: egutegiko bi egun, seme-alaba horientzako kontsulta medikoetara joateko, betiere probintziatik kanpo joan behar bada.

5. Seme-alaben jaiotzagatik: bi lanegun. Ebakuntza egin behar izanez gero, egutegiko hiru egunez luzatuko da epea.

6. Seme-alaben, anai-arreben, anai-arreba politikoen, gurasoen, aita-amaginarreben ezkontzagatik: egutegiko egun bat.

7. Langilearen ezkontzagatik: egutegiko hamazazpi egun. Ekoizpen- eta antolaketa-gorabeherek aukera ematen badute, baimen hori beste hamar egunez luzatu ahal izango da, ordaindu gabe. Enpresak baimen gehigarri hori ukatzen badu, ukatzearen arrazoia jakinarazi beharko dio enpresa-batzordeari edo langileen ordezkariari.

8. Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik: egutegiko egun bat.

Artikulu honetako 1., 2., 3., 5., eta 6. idatz-zatietan jasotako kasuetan, lehen adierazitako epeak beste bi egun arte luzatu ahal izango dira gehienez, langileak probintziatik kanpora joan behar izanez gero.

9. Edoskitzea: edoskitze-aldian eta umeak 9 hilabete bete arte, emakume langileek lanaldian ordubeteko etenaldia egiteko eskubidea izango dute. Atsedena hori bi zatitan banatu ditzakete. Baimenaren iraupena proportzionalki handituko da erditze anizkoitzen kasuan. Eskubide horren ordez, emakumeak, hala nahi badu, aukera izango du ohiko lanaldia ordubete murrizteko helburu bererako, edo ordubete hori lanaldi osotan metatzeko. Aitak zein amak baliatu ahal izango dute baimen hori, biek lan egiten badute.

10. Mediku-kontsultak. Osakidetza/Euskal Osasun Zerbitzuko espezialisten mediku-kontsultara joateko, langileak behar duen denbora guztia, kontsulta-ordua lan-ordutegiaren barruan izanik, medikuntza orokorreko mediku batek kontsulta hori agindu badu. Langileak, kontsulta aurretik, mediku-agindu horren egiaztagiria aurkeztu beharko du enpresan. Gainerako mediku-kontsultetarako, gehienez 16 ordu har daitezke urtean. Hamasei orduko muga horretan sartuta egongo da mendetasunak dituzten pertsonen (ezkontideari, gurasoei eta seme-alabei) lagun egitea.

10. idatz-zati hau ez da arauzkoa, eta hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera jarriko da indarrean.

Langileak hala nahi izanez gero, artikuluko honetako 3. eta 5. ataletan xedatutako baimenak lanaldi erditan bana daitezke, enpresaren ekoizpen-antolaketari kalterik egiten ez bazaio. Langileak ez du ahalmen hori izango probintziatik kanpo joan behar izateagatik baimena luza daitekeenean.

Artikulu honetan araututako baimenak eta lizentziak gertaera eragilea jazotzen den unean bertan hartu beharko dira. 3. idatz-zatian adierazten den kasuan, gaixotasun larriak irauten duen bitartean hartu beharko da baimena, eta aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Hamazazpigarren artikulua

Ordaindu gabeko lizentziak eta baimenak. Ordaindu gabeko eta berreskuratu beharreko baimena emango da, baldin eta langileak gutxienez 48 ordu lehenago adierazten badu baimen hori hartzeko asmoa, edo 24 ordu lehenago, larrialdiko kasua bada. Urtean, gehienez, 3 egun hartzeko aukera izango da (jarraian hartzen badira, gehienez 2).

Egun berean, sekzio bereko langileen ehuneko 20k soilik hartu ahal izango du horrelako baimena. Tarte horren barruan, lehenago eskatu dutenek izango dute baimena hartzeko lehen-tasuna.

Enpresak ez du obligaziorik izango baimen horiek emateko opor-hasieraren aurreko egunean eta opor-amaieraren ondoko egunean.

Hitzarmenaren batzorde paritarioak aztertuko ditu gertatzen diren salbuespenezko kasu guztiak.

Hemezortzigarren artikulua

Prestazio osagarriak aldi baterako ezintasuneko kasuetarako:

1. Lan-istripuen edo lanbide-gaixotasunen ondoriozko aldi baterako ezintasuneko prozesuetan, enpresak langileari bermatuko dio hileko ordainsari-kontzeptuengatik jaso behar duen ordainsari gordinaren ehuneko 100 jasoko duela, baja hasi ondoko 16. egunetik eta bajaren hasiera-egunetik 120 egun igaro arte, gehienez. Muga horretatik aurrera, enpresak ez du prestazio osagarri hori ordaintzeko obligaziorik izango.

Mediku-diagnostikoa "larria" edo "oso larria" baldin bada, edo arrazoi horrengatik langilea ospitaleratu behar bada, gertaera eragilearen egunaren biharamunetik ordainduko zaio langileari prestazio osagarri hori, aipatutako 120 eguneko mugara arte. Ondorio horietarako, istripu larritzat joko da medikuak halakotzat jotzen duena hasierako ziurtagirian zein alderdiek eskatuta geroago ematen dituenean.

Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako aldi baterako ezintasuneko prozesu horietan, eta betiere soldata gordina aintzat hartuta, enpresak honako hauek bermatuko ditu:

- 1. egunetik 15. egunera: ehuneko 85.
- 16. egunetik 120. egunera: ehuneko 100.
- 120. egunetik aurrera: ehuneko 85.

2. Gaixotasun arruntek eta lanez kanpoko istripuek eragindako aldi baterako ezintasuneko prozesuetan, enpresak Gizarte Segurantzaren babes-ekintza osatuko du 2021. urtean. Xede horri begira, 60,38 euro/egun ordainduko zaizkio eragindako langileari, prozesu horien hasierako hiru egunetan (une honetan, Gizarte Segurantzak ez ditu hiru egun horiek estaltzen). Teknikariek eta administrariak 67,52 euro/egun jasoko dituzte.

Aurreko osagarriari utzi gabe, 2021ean, enpresak eguneko 16,93 euroko laguntza ordainduko dio eragindako langileari, ABEko legezko prozesu baten barruan langileak osasun-bajan emandako egutegiko egun bakoitzeko, baldin eta enpresaren plantilla guztiaren gaixotasun arruntengatiko eta lanez kanpoko istripuengatiko baja-egunen guztizko kopuruak 420 eguneko muga gainditzen ez badu urtearen amaieran. Kopuru hori 420 egunetik gorakoa baina 477 egunetik beherakoa bada, 15,05 euroko laguntza jasoko du langileak eguneko; eta azkenik, enpresako baja-egunen kopurua 477tik gorakoa bada, 14,63 euroko laguntza jasoko du eguneko.

Paragrafo honetan aipaturiko baja-egunetarako, kontuan hartu behar da 2021eko batez besteko plantilla 21 pertsonakoa dela. Plantillako langiletzat hartzen dira Gizarte Segurantzari kotizatzen dioten langile guztiak.

Aurreko paragrafoan gaixoentzat aipatzen den laguntza ordaintzeko, langileek 14,63 euro/egun jasoko dituzte 2021. urtean enpresan izaten diren gaixotasunagatiko edo lanez kanpoko istripuagatiko aldi baterako ezintasuneko prozesuetan.

Urtea amaitzean, aipatutako egun-kopuruak gainditu ez badira, enpresak langileen aldeko aldeak ordainduko ditu, halakorik egonez gero, aurreko paragrafoan ezarritako eskalaren arabera.

Gizarte Segurantzaren babes-ekintza arautzen duen lege-araudian hobekuntzarik xedatuz gero, hobekuntza horiek automatikoki xurgatuko dituzte artikulua honetan jasotako osagarri eta laguntza guztiak, osorik edo partzialki.

2021ean, teknikariek eta administrariak 28,97 euro, 26,07 euro eta 24,36 euro jasoko dituzte.

Langileak aldi baterako ezintasuneko egoeran emandako hilabeteen jasotako zenbatekoak eta, hala badagokio, urtea amaitzean 2. atalean xedatutako osagarri eta laguntzengatik jasotako guztizko zenbatekoak ezin izango dute inola ere gainditu langileak jardunean egonez gero jasoko lukeen ordainsari gordinen zenbatekoa.

Hemeretzigarren artikulua

Erretiroa hartzea. Kontingentzia horretarako egun indarrean dauden ehuneko murriztailek iraun bitartean, arauzko adina bete aurretik erretiroa hartzea erabaki eta enpresan gutxienez 15 urte daramaten langileei kalte-ordainen eskala honen arabera kalte-ordaina aitortzen zaie, hitzarmeneko soldata aintzat hartuta.

- 4 urte lehenago: 8 hileko soldata.
- 3 urte lehenago: 6 hileko soldata.
- 2 urte lehenago: 4 hileko soldata.
- 1 urte lehenago: 2 hileko soldata.

Erretiro-arloko egungo araudiak dirauen bitartean, erretiroa aurretik edo indarreko legediak xedatutako adinean hartu eta eskatutako baldintzak betetzen dituzten langileek eskubidea izango dute hitzarmeneko soldataren zortzi hileko soldaten sari baliokidea jasotzeko.

Banakako itunaren bidez, enpresak eta langileak adostu dezakete 64 urterekin erretiroa hartzeko sistema berezira atxikitzea, prestazioen ehuneko 100 jasotzen dela, uztailaren 17ko 1194/1985 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan. Horrekin bat, enpresak langile gazteak edo langabezia-asegurua jasotzen ari direnak kontratatu beharko ditu berehala. Xede horretarako eta mekanismo horrek ematen dituen aukerak baloratzeko, prozedura horretan sar daitezkeenei buruzko zifrak aurkeztuko dituzte alderdiek batzorde paritarioaren lehenengo bileran.

Langile batek dagozkion prestazioen ehuneko 100 jasotzeko eskubidea izanik hartzen badu erretiroa, haren lanpostua langile berri batek hartzen duela —Lanbiden langabetu edo enplegu-eskatzaile gisa inskribatua—, ez dagozko artikulua honetan xedatutako erretiroagatik saririk jasotzea.

Artikulu honetan aipatzen den saria edo kalte-ordaina ez da 1588/1999 Errege Dekretuan aipatzen den “pentsio-konpromisoa”; ondorioz, legezko xedapen horretan zehaztutako betebeharretatik kanpo geratzen da. Hori dela-eta, batzorde paritarioak erabateko ahalmena dauka testu hau behar den unean egokitzeko gai honi eragiten dioten legezko edo arauzko xedapenetara, bai eta hobekuntza hori aldatzeko ahalmena ere, batzordearen iritziz egokiagoa izango litzatekeen testu batez ordeztzeko. Horretarako, batzordekideek aho batez adostu beharko dute hori.

Hogeigarren artikulua

Absentismoa. Urtean, absentismoa ehuneko 5etik beherakoa bada, enpresak 78,75 euro ordainduko ditu hurrengo urtarrilean, behin absentismo-indize hori egiaztatu eta gero. Halaber, 71,60 euro ordainduko dira adierazitako ehuneko 5etik beherako puntu bakoitzeko.

Hogeita batgarren artikulua

Istripu eta/edo lanbide-gaixotasunetarako aseguru-poliza. Laneko istripuetarako aseguru-polizak formalizatu beharko ditu enpresak, eta langileei kapitulu eta arrisku hauek bermatu.

1. 36.000,00 euro, lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako heriotzgatik.

2. 48.000,00 euro, lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik, laneko eta Gizarte-Segurantzako erakunde eskudunek horrelakotzat jotzen badituzte.

Enpresak horretarako harpidetzen duen polizaren kopia bat emango zaio enpresa-batzordeari. Batzordeak hurrengo 15 eguneko epea izango du, dagozkion oharrak enpresari jakinarazteko.

Epe hori oharrak egin gabe igaroz gero, edo oharrak eginda aldean artean konpontzen badira, poliza hori ontzat ematen dela ulertuko da.

Istripu-aseguruetarako polizek bermatu egingo dute zehaztutako arriskuengatik adierazitako kapituluak jasoko direla, lan-istripua hitzarmen hau Eusko Jaurlaritzako Lan Ordezkaritzan aurkeztu ondoren gertatzen bada.

Hogeita bigarren artikulua

Prestakuntza-plana. Enpresak langile guztiei ordainduko dizkie zuzendaritzak eta batzordeak urtero adosten dituzten prestakuntza-ikastaroekin lotutako lanbide-ikasketengatik gastuak, baldin eta gastuak behar bezala egiaztatzen badira, ezarritako lanaldia errespetatzen dela.

Ikasketak ezinbestean lanaldiaren barruan egin behar badira, enpresa ahaleginduko da eragindako langileari beste ordutegi bat egokitzen, ekoizpen-prozesu orokorrean kalterik eragiten ez bada. Prestakuntza-planak borondatezkoak izango dira langile guztientzat.

Hogeita hirugarren artikulua

Laneko arropak garbitzea. Hitzarmen honen indarraldian, enpresaren kontura izango da laneko arropen garbiketa.

Hogeita laugarren artikulua

Janari-zerbitzua. Enpresak lanaldi jarraitua duten langileei eskatzen badie 8 orduko lanaldi arruntaren ondoren aparteko orduak egiteko, eta langileek enpresatik irten gabe egiten badi-tuzte, 5,12 euro ordainduko zaizkie "makina automatikoak" kontzeptuagatik.

Langileak kanpora irten behar badu jatera, enpresak eguneko menuaren prezioa ordainduko dio. Faktura aurkeztu beharko da, eta 11,25 euro ordainduko dira gehienez ere.

Hogeita bosgarren artikulua

Soldata-taulak. Hemen adostutako kopuruak dira enpresak sinatu eta zigilatutako solda-ta-orrian jasotzen direnak, eta langile guztiek eska ditzakete.

Orokorrean kontuan hartuta hitzarmen honetan itundutakoa gainditzen duten baldintza pertsonalak errespetatu egingo dira, hitzarmenaren indarraldiaren aurretik hemen ezarritakoa baino ordainsari handiagoa jasotzen zuten langileei ordainsaririk ez gutxitzeko, hitzarmena indarrean jartzearen ondorioz.

Hogeita seigarren artikulua

Baldintza ekonomikoak. Hitzarmen honetan itundutako baldintzak osorik hartzekoak eta baezinak dira, eta aplikazio praktikoari begira, urteko kopuruan hartuko dira kontuan. Hitzarmen honetan ezarritako kontzeptu ekonomikoek une honetan sektorean dauden guztiak xurgatu eta konpentsatuko dituzte, hitzarmena indarrean jartzen den unetik, kontzeptuen izena, izaera edo jatorria edozein izanik ere.

Hogeita zazpigarren artikulua

Legedi osagarria. Hitzarmen honetan xedatzen ez den guztirako, Arabako metalaren hitzar-menean edo aplikatzekoa den beste edozein arautan xedatutakoa aplikatuko da.

Aurreko arauak ez dira inola ere aplikatuko, aplikazio horren ondorioz enpresak hitzarmen honetan jasotako baldintza ekonomikoak edota langile bakoitzak finkatuta dituenak gainditu beharko balitu.

Berme sindikalei dagokienez, enpresa honetan orain arte izan diren berberak izango dira hitzarmen hau indarrean den bitartean: 40 ordu hilean enpresa-batzordeko kide bakoitzeko edo sindikatu-ordezkarri bakoitzeko.

Hogeita zortzigarren artikulua

Batzorde paritarioa. Batzorde horren helburua da hitzarmen hau behar bezala aplikatzen dela ziurtatzea, hitzarmena interpretatuz eta esleitzen zaizkion gai guztiak jorratuz.

Honako hauek osatuko dute:

- Enpresaren zuzendaritzaren izenean: SAI andrea.
- Enpresako langileen izenean: DDE jauna.

Batzorde paritarioak bere eginkizunen baitan egingo dituen bileretan, aipatutako bi alderdietatik bertaratzen diren kideen kopurua dena delakoa izanda ere, alderdi bakoitzak ehuneko 50eko balio haztatua izango du hartu beharreko erabakietan.

Hitzarmena aplikatzerakoan desadostasunik sortuz gero eta adostasunik lortzen ez bada batzorde paritarioan, desadostasunok Lan Harremanen Kontseiluari igorriko zaizkio, gatazka kolektiboak konpontzeko prozeduraren (PRECO) bidez ebazteko.

Hogeita bederatzigarren artikulua

Hitzarmena ez aplikatzeko klausula. Enpresak eskatu dezake hitzarmen honetan xedatutako baldintza ekonomikoak eta soldata-igoerak (osorik edo zati batean) ez aplikatzea, jarraian adierazten diren baldintzetan.

Arrazoiak: soldata-erregimenaren aplikazio berria eska daiteke, kasu hauetakoren bat gertatuz gero:

1. Enpresaren emaitzak ikusita, egoera ekonomikoa negatiboa dela esan daitekeenean, hau da, galerak daudenean edo aurreikusten direnean, edo diru-sarrera arrunten edo salmenten mailan jaitsiera iraunkorra denean. Nolanahi ere, jaitsiera iraunkorra dela joko da baldin eta segidako bi hiru hilabetan hiru hilabeteko bakoitzeko diru-sarrera arrunten edo salmenten maila txikiagoa bada aurreko urteko hiru hilabeteko berekoa baino.

2. Enpresa enplegu-erregulazioko espedientearen egoeran dagoenean, betiere lege ezarritako kausak tarteko, eta gutxienez langile guztien ehuneko 15a eraginpean hartzen dutela (kaleratze kolektiboa, kontratuak etetea eta abar barnean hartuta), arrazoi ekonomikoen ondorioz.

Prozedura: hitzarmen honetako soldata-erregimena ez aplikatzeko asmoa duten enpresek idatziz jakinarazi beharko diete hitzarmenaren batzorde mistoari eta langileen ordezkariari, edo hori ez balego, langileei. Langileen ordezkariari edo langileei eman beharreko idazkiarekin batera, soldata-erregimen desberdina justifikatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte (balantzeak, emaitzen kontuak, edo horiek ez baleude, kontu-ikuskarien txostena edo beste dokumentu batzuk).

Aurreko jakinarazpena egin ondoren, soldata-erregimena ez aplikatzeari buruzko adostasunik ez bada lortzen 15 eguneko gehienezko epean, espedientea hitzarmenaren batzorde misto paritarioari igorriko zaio. Batzorde horrek 10 eguneko epean erantzun beharko du.

Batzorde misto paritarioak beharrezko jotzen badu, dokumentazio osagarria eskatu ahal izango du, bai eta aholkularitza teknikoa ere.

Akordiorik lortzen ez denerako, bi alderdiek hitz ematen dute estatutuaren arabera hitzarmen kolektiboak ez aplikatzeko prozedurak ebazteko organora (ORPRICCE) joko dutela desadostasunak konpontzeko, horretarako ezarritako prozedurei jarraituz.

Hitzarmen hau ez aplikatzea erabakitzen bada, urtebeterako ondorioak izango ditu neurri horrek. Enpresak hitzarmena denbora luzeagoz ez aplikatzea nahi izanez gero, berriz eskatu beharko du baimena, artikulua honetan xedatutako prozeduraren bidez.

Nolanahi ere, baimena urtebetekoa izango da. Adierazitako epea igarotakoan, hitzarmen honetan ezarritako baldintzak aplikatzen hasiko dira berriz, automatikoki.

Langileen ordezkariak aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioz jasotako informazioa eta eskuratutako datuak ahalik eta diskrezio handienarekin erabili eta gorde beharko dituzte, eta isiltasun profesionala izan beharko dute.

Batzorde misto paritarioaren erabakiak batzordea osatzen duten ordezkariak bakoitzeko kideen gehiengo sinplez hartuko dira, eta erabaki horiek ez dute baldintzatzen alderdietako edozeinek lan-arloko jurisdikziora jotzeko duen eskubidea.

1. eranskina. Joan-etorrietako gastuak eta dietak-2021**Gastuak**

KONTZEPTUA	BALDINTZA	GEHIENEO ZENBATEKOA (EUROTAN)
Km	Justifikatuta	0,38 euro
Gosaria	Justifikatuta	4,96 euro
Bazkaria	Justifikatuta	20,87 euro
Afaria	Justifikatuta	20,87 euro
Hotela	Justifikatuta	Faktura aurkeztuta
Beste zenbait gastu	Justifikatuta	Faktura aurkeztuta

Estaturako eguneko plusa

KONTZEPTUA	BALDINTZA	GEHIENEO ZENBATEKOA (EUROTAN)
Lanegun arrunta. Urrun. 300 Km	Gaua kanpoan emanda - Helmugatik 150 km-ra baino gehiagora	32,94 euro
Jaieguna	Gaua kanpoan emanda edo eman gabe	
	Lanik egin gabe	58,17 euro
	Lana eginda	116,35 euro

Bidaia-orduak lanean emandako egun arruntzat hartzen dira, eta eguneko plusa gaua kanpoan eman bada baino ez da ordainduko.

Gaueko lanagatik plusa

KONTZEPTUA	GEHIENEO ZENBATEKOA (EUROTAN)
Gaua etxetik kanpo emanda	27,44 euro

Ekoizpen-teknikariaren plusa

KONTZEPTUA	BALDINTZA	GEHIENEO ZENBATEKOA (EUROTAN)
Lanegun arrunta	Gaua kanpoan emanda Helmugatik 150 km-ra baino gehiagora	33,39 euro
	Gaua etxetik kanpo emanda	27,44 euro
	Gaua etxetik kanpo eman gabe, apartekoaren prezioa:	21,91 euro
Jaieguna	Gaua kanpoan emanda edo eman gabe	
	Lanik egin gabe	58,17 euro
	Lana eginda	116,35 euro

Otorduetarako orduak ez dira lan-ordutzat hartzen.

Atzerrirako plusa (*)

KONTZEPTUA	BALDINTZA	GEHIENEO ZENBATEKOA (EUROTAN)	HERRIALDE ARRISKUTSUAK
Lanegun arrunta	Gaua kanpoan emanda edo eman gabe	41,52 euro	57,29 euro
Jaieguna	Gaua kanpoan emanda edo eman gabe		
	Lanik egin gabe	74,81 euro	89,74 euro
	Lana eginda	132,52 euro	159,59 euro

(*) Herrialde arriskutsuak badira (Afrikakoak eta Asiakoak, Singapur, Malasia, Japonia eta Errusia izan ezik) ehuneko 20 gehiago ordainduko da plus horregatik.

2. eranskina. Oinarrizko soldata kategoriaka

KATEGORIA	URTEKO OINARRIZKO SOLDATA	HILEKO OINARRIZKO SOLDATA
1. mailako ofiziala	30.290,74 euro	2.163,62 euro
2. mailako ofiziala	28.351,40 euro	2.025,10 euro
3. mailako ofiziala	27.217,53 euro	1.944,11 euro
Espezialistak	25.882,76 euro	1.848,76 euro

3. eranskina. Bosturtekoen taula. 2021. urtea

KATEGORIA	1 BOST.	2 BOST.	3 BOST.	4 BOST.	5 BOST.	6 BOST.	7 BOST.	8 BOST.
Peoia	33,55	64,36	88,94	128,45	151,20	166,92	196,77	219,35
Espezialista	34,24	66,43	99,30	132,42	152,49	166,92	200,46	230,54
3. mailako ofiziala	35,41	67,37	100,70	134,04	167,83	190,95	222,90	254,35
2. mailako ofiziala	36,24	68,75	102,21	135,97	175,18	198,49	227,23	259,05
1. mailako ofiziala	37,06	69,25	105,40	140,18	179,26	202,83	242,93	277,27
Administraria	33,80	65,74	99,30	132,43	152,49	169,40	242,93	277,26
Arduraduna	37,06	69,25	105,40	140,18	179,26	202,83	242,93	277,27
Buruak	39,88	76,98	118,91	154,81	195,17	218,23	255,31	291,19

4. eranskina. Gaueko lanagatiko, eta lan toxiko, nekagarri eta arriskutsuagatiko plusa

LAN TOXIKO, NEKAGARRI ETA ARRISKUTSUAGATIKO PLUSA	PEOIA	ESPEZIALISTA	3. MAILAKO OFIZIALA	2. MAILAKO OFIZIALA	1. MAILAKO OFIZIALA
	EGUNA	EGUNA	EGUNA	EGUNA	EGUNA
1 zirkunstantzia	5,14	5,18	5,39	5,47	5,64
2 zirkunstantzia	6,46	6,59	6,63	6,74	6,94
3 zirkunstantzia	7,72	7,85	7,98	8,14	8,43

GAUEKO LANAREN PLUSA	PEOIA	ESPEZIALISTA	3. MAILAKO OFIZIALA	2. MAILAKO OFIZIALA	1. MAILAKO OFIZIALA
	EGUNA	EGUNA	EGUNA	EGUNA	EGUNA
	5,75	5,75	5,86	6,11	6,27

5. eranskina. Aparteko orduak, 2021

KATEGORIA	ZENBATEKOA
Arduraduna	25,16 euro
Taldeburua	23,62 euro
1. mailako ofiziala	22,48 euro
2. mailako ofiziala	21,63 euro
3. mailako ofiziala	20,71 euro
Espezialista	19,22 euro
Peoia	19,22 euro
Mendekoa	19,22 euro



LAGUN MACHINERY LAN-EGUTEGIA, 2021

Apirila (14eg x 8or = 112or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Martxo (22eg x 8or = 176or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Otsaia (20eg x 8or = 160or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

Utarrila (19eg x 8or = 152or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Akzaro (28eg x 8or = 224or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Uztaila (22eg x 8or = 176or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Eneak (22eg x 8or = 176or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Maiatza (21eg x 8or = 168or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Abeztu (14eg x 8or = 112or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Azaro (21eg x 8or = 168or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Urtaria (19eg x 8or = 152or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Iraila (22eg x 8or = 176or)

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	lg
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Ignatie eta jaiagunak
 berreskuratzeak (lanituzak, zubiak eta Gabonak)
 Oporrak

Guztira, 1.744 ordu dira
 Norberaren aukerako 3 egun